

## ARANTZAKO INAUTERIAK

**PRIMI**  
ostatua  
Ongi pasa inauteriak!

Goiko karrika, 7 - ARANTZA - T. 948 634 052



ongi pasa inauteriak!

**Burlada**  
estatu-jalea

**BEREZITASUNAK**  
Haragiak  
Arrainak  
Etxeo Postreak

**MENU BEREZIAK**  
Taldeak  
Mendizaleak  
Jaunartzeak  
Otorduak

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA  
restauranteburlada@hotmail.com  
www.restauranteburlada.com

### Egitaraua

#### Otsailak 13, ortzeguna

**08:30ean** Mozorro Zurien gosaria Primi ostatuan. **11:00etan** Mozorro Zuriak eskolako ikasleekin elkartuko dira. **Ondotik** Mozorro Zuriak base-  
rriz baserri *puxka-puxka* ibiliko dira Beñat eta Andoni Mitxelena musikariek. **21:30ean** Mozorro Zurien afaria Primi ostatuan.

kalejira herrian barna. **20:30ean** mo-  
zorro ttikiei ongetorria. **21:00etan**  
alde batetik, bertso afaria Aterpean  
Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia-  
rekin eta, bertzetik, emakumeen  
afaria. **01:00etatik aitzinera** Belfast  
taldearekin dantzaldia gorapean.

#### Otsailak 14, ortziralea

Egun osoan eskolako haurrak Aien-  
tsa, Azkilarrea eta Bordalarrea au-  
zoetan baserri eta herrian  
etxez etxe eskean ibiliko dira. **09:00etan** Mozorro Zurien gosaria Primi ostatuan. **11:00etan** Mozorro Zuriak *puxka-puxka* herrian ibiliko dira. **15:30ean** Burlada jatetxean Mozorro Zurien bazkaria. **Ondotik**

#### Otsailak 15, larunbata

**Goizean** eskolako haurrak baserri-  
z baserri ibiliko dira Eguzkialdea au-  
zoan. **14:00etan** Mozorro Zurien  
bazkaria Pabloenea jatetxean. **Arra-  
tsaldean**, haur, gazte eta heldu mo-  
zorrotuen kalejira. **Ilunabarrean**  
Mozorro Zurien herri kirol saioa  
frontoian. **Ondotik** Mozorro Zurien  
afaria Ekaitza Elkartean. **00:30etik  
aitzinera** Muxutruk taldearekin dan-  
tzaldia gorapean.

**ilargi**  
okindegia

**APEZENA**

Ongi pasa inauteriak!

Enkarguak: 948 634 156 · ARANTZA

**Zurekin**  
DISEINUAK

KANPO NAHIZ BARNE  
DISEINURAKO  
BEHAR DUZUNA,  
ETORRI IKUSTERA  
KONPROMISORIK GABE!

SUKALDEAK | LURRAK | ARMAIRUAK  
ATEAK | TEILATUAK | EGURLANAK

Kanttonberri, 3 BERA · Tel: 722 52 14 71

**AINHOA**  
ALTZUGUREN  
MITXELENA

ABOKATUA

Dibortzioak  
Kontratuak  
Arazo administratiboak

ZERBITZUA  
EUSKARAZ

BERA | M. 630 972 189  
ainhoaaltzuguren@gmail.com



# «Mozorro izateak gazteen artean harremanak sortzeko balio du»

IRATI AZPIROZ ERRANDONEA ARANTZAKO GAZTEA



Irati Azpiroz ezkerrean, Maren lehengusuarekin.

«Inauterietan herritar guziak elkartzen gara, eta hori da Arantzako inauteriak berezi egiten dituen». Hala dio Irati Azpirozek (Arantza, 2005). Historia ikasten ari da Gasteizen, eta «karrera polita bezain zaila» dela dio. Azterketen bolada bete-betean bildu da ТИPI-ТТАPAREkin, baina begi bat inauterietara begira du, azterketak bukatuta, inauterietan gozatzea baitu helburu.

Maite ditu inauteriak. Eta inauteriez galdetuta, «emozioa» da aipatu duen lehenbiziko solasetako bat. Hori sentitu baitu haurra denetik: «Haurrak ginenean, emozionatuak egoten ginen inauteriak ailegatzeko esperoan: eskolan, Mozorro Zuriak eskolara joateko deseatzten eta etxean berdin. Gure etxean beti ireki izan dizkiegu Mozorro Zuriei ateak eta dena hagitz hur-biletik bizi izan dut». Mozorrotzeak ere ilusioa egiten zion: «Nerbioso egoten nintzen mozorrotu behar nuelako».

Azken urteotan, ordea, atorra koa-droduna eta galtza urdinak eta zuriak dira inauterietako bere trajea, Mozorro Zuri ateratzen baita. 16 urterekin egin zuen estreinaldia. Aitortu duenez, «gogoarekin, baina hasieran nerbio» sentitu zen: «Denak gu baino zahar-ragoak ziren, eta hasieran tiki eta pixka bat lotsatuta sentitu nintzen». Agudo eman zion buelta egoerari:

«Akordeoi soinua hasi orduko, kantari eta solasean hasi ginen, eta denak elkartu ginen. Hagitz esperientzia polita izan zen, gozarena». Gehiago ere erran du: «Inauterietan Mozorro Zuri ibiltzeak adin aunitzetako gazteen artean harremana sortzeko balio du eta hori hagitz polita da».

## Etxekoen aholkuak gogoan

Etxekoek Mozorro Zuri atera aitzinetik emandako aholkuak ez ditu atzenuak: «Atta urte batean trikitixarekin atera zen eta osaba Joxemari urte aunitzetan Mozorro Zuri». Osabak, alde batetik, «baserrietan ongi egoteko» erraten omen zion, «lotsatua ez ibiltzeko, baina beti errespetua erakusteko eta esker onekoa izateko». Bertzetik, «jatekoa eta edatekoa kontrolatzeko». Eta etxekoen hirugarren gomendioa «mugikorrarekin ez ibiltzeko, eta etxeetan jendeari solasa emateko». Hain zuzen, gogoan dituen aholku horiek aurten lehenbiziko aldiz Mozorro Zuri aterako den Beñat anaiari oroitaraziko dizkio. Berak, berriz, laugarren urtea izanen du, baina hasierako ilusioa galdu gabe aterako da, «beti bezala, gogoarekin». 16 urtetik goitiko 30-40 Mozorro Zuri izanen dira eta bi taldetan banatuak ibiliko dira.

Atea irekitzen dieten herritarrei eskerrak emateko ere probestu nahi izan du tartea: «Euforiko, kontent, nahasiak, mozkorrak... dauden hainbortze gazteri irri batekin etxean sartzen uztea ikaragarria da. Kristoren bihotza dute. Herritarren eskuzabaltasun hori gabe, ez litzateke Mozorro Zuririk izanen, eta Arantzako inauteriek duten berezitasun hori galduko lukete». Bideanbar, Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilarien abildadea goraiatu du, «hoberenak» direla eta «eurekin giroa segurtatua» dutela nabarmenduz. Eta Mozorro Beltzei bertze gonbita: «Joan den urtean aski ikuskizun elegantea eskaini zuten herri kirolelan, eta berriz holako zerbait egin dezatela!».